

dibertsitate ekologikoa

Haginak leku itzaltsuak maite ditu (iparraldera edo ekialdera begira dauden magalak), nahiago baititu giro fresko eta hezeak, baina edozein kokagunetan ager daiteke.

Substratuaren izaera gorabehera, kareharrizko lurretan zein azidoetan aurkitzen da, altitude tarte zabal batean (100-600 metro).

Behar hidrikoak aseta dituen bitartean (urteko prezipitazioa 600 mm baino gehiago), oso erraz moldatzen da klimara (klima atlantikoa, mediterraneoa, mendialdekoa...). Ongi eusten dio hotzari, baina kaltebera da izotz berantiarrekin edo lehorte aldi luzeekin.

Kantauriar mendialdean baso misto hostotsuetan aurkitzen da, harizti, pagadi zein pinudietan, haitzarte eta mendi zintzur harritsuetan, eta are ipurudi herrestari, isasti eta txilardietan.

Argi falta ondoen jasaten duen Kantauriar Mendilerroko zuhaitz espeziea da, pagoarekin batera. Horregatik, esan ohi da espezieak "itzaleko jitea" duela edo "tolerantea" dela.



Hagina kareharrizko haitz baten arrailean



Haginak hostotsuen baso misto bateko errezelaren parte (adaburu berde ilunak).



Haginak erkametz, pinu gorri, gurbitz, astigar eta abarrez osatutako baso misto batean



Hagina hareharrizko bloke baten gainean



Haginak itsas pinuen azpian



Hagina pagoen azpian

Hagina oso motel hazten da, baina oso bizitza luzea du, eta ez da harritzekoa 500 urte baino gehiagoko aleak aurkitzea.



Espezie toxikoa den arren (landarearen zati guztiak pozoitsuak dira, pseudofruituaren ariloa izan ezik), basa ungulatuek zein etxekoek kantitate jakin bat toleratzen dute, eta oso gustukoa dute, batez ere negu partean, elikagaia urri denean. Hegazti ugari eta bestelako animalia batzuek ere (mikrougaztunak, etab.) gustura jaten dituzte pseudofruituak, eta, horrenbestez, espeziea hedatzen laguntzen.



Argazkiak: Xavier García Martí / Antonio Alonso Sánchez / Vicente Sanz Fernández de Gobeo / Fco. Javier Ezquerro Boticario / LIFE BACCATA proiektuko bazkideak

www.life-baccata.eu

BAZKIDEAK



LAGUNTZAILEAK

